


# Ezpalak

JON TORNER

## Oskar Arana

Paul Austerren *Man in the dark* (Gizona ilunpean) nobela euskarara itzuli du, Alberdania argitaletxearen eskutik. Euskarazko bertsoia irailaren 2an kaleratu zuten eta jatorrizkoa (ingelesezkoa) egun bat lehena. Paul Austerren eta bere agentziaren erabakia izan da ingelesezko bertsoarekin batera gainerako hizkuntzetakoak ere kaleratzea.



## Donostiako Untzi Museoa

*Itsasoaren indarra* izeneko erakusketa paratu dute. Euskal Herriko kostan izandako itsas ekaitzen 50 argazki topatuko ditu bisitariak. Hedabideetan lan egiten duten 20 argazkilariren irudiak bildu dituzte, eta 1900. urteaz geroztik izandako ekaitzen argazkiak ere ikusgai daude. Erakusketa Euskal Herriko Informatzaile Grafikoen Elkarteak antolatuta du.

## Katamalo

taldea osatzen duten musikariek ([www.katamalo.org](http://www.katamalo.org)) azaroaren 1ean eskainiko dute euren azken kontzertua, Durangon. Aurrez Bilbon (irailaren 25ean), Ortuellan (urriaren 2an), Gasteizen (urriaren 9an), Iruñean (16an) eta Donostian (22an) joko dute. Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak, bestalde, *Erantzi. Katamalo zuzenean* diskoa kaleratu du.



**Musikale** Kaleko Musikariren Nazioarteko Jaialdiaren 8. edizioa Basaurin, Erandion, Leioan eta Sestaon ospatuko da. Irailaren 19tik 21era munduko alde desberdinetatik etorritako hamabi musika taldek joko dute jaialdian. Horien artean izango dira Albokale, Erandioko Musika Banda eta Perfusion. Hauetaz gain, Britainia Handiko Bollywood Brass Band, Kolonbiako Palo O'sea, Frantziako Les Costards eta Andaluziako La Banda de Brallan egongo dira, besteak beste. Emanaldi guztiak doakoak izango dira.

## Bidasoaren bi aldeetan dantzan

**DANTZA ETA ARKITEKTURA** uztartuko dituen Dantza Hirian jaialdiaren 3. edizioa hilaren 17tik 27ra bitartean egingo da Donostian, Irunen, Hendaian eta Baionan. Hiri horietako eraikin, plaza eta txoko ezagunak beste begi batzuen bidez deskubritzeko aukera eskainiko dute dantzariak. Estilo guztietako emanaldiez gozatzeko aukera izango dute helduek zein umeek. Ertza konpainia donostiarrak, Entremáns galiziarak, Nats Nus katalanak eta Black Blanc Beur frantziarrak parte hartuko dute Dantza Hirian jaialdian, besteak beste. Ekimenari buruzko informazio gehiago [www.dantzahirian.com](http://www.dantzahirian.com) webgunean eskura dezakezue.

## Ekaingo haitzuloaren erreplika ireki dute

**JADA INAUGURATU DUTE** Zestoako Ekainberri eraikina, Debako lurretan dagoen Ekain haitzuloaren erreplika. Bi ibilbide eskainiko ditu. Aurrenekoan Renaud Sansonek egindako panelak aurkituko ditu bisitariak. 1969an Ekaingo pinturak aurkitu zituzten lagunen sentipenak islatzen dituzte panel horiek. Bigarren ibilbidean, erreplikako gidariek azalpenak eskainiko dizkiete gehienez 20 lagunez osatutako taldeei. Horrez gain, Euskal Herriko labar-arteari buruzko erakusketa aretoa ere badu Ekainberri.



Iban Zaldua idazleak *Volcako Batelariak* blogean: «Zeintzuk izan daitezke euskal ipuingintza-aren sendotasunaren arrazoi nagusiak? Agian euskal liburu-merkatuaren ezaugarri berezieta-ra jo beharko genuke lehenik eta behin, merkatu horren txikitasunera alegia, eta beste literatura handiagoen 'arauetatik' (hots, merkatuaren berunezko legeetatik) ihes egiteko eduki ditugun aukera zabalxeagoetara. Editorea erlatiboki babestuta dago dirulaguntza sistemari esker (ez sobera ere), eta ipuin liburu batekin aberastuko ez den arren (baina ezta nobela gehienekin ere), ez du agian galera handiegia jasango eta, beraz, arriskatu daiteke literatura-sistema handiagotan 'komertzializat' hartzen ez diren generoko liburu gehiago argitaratzera, hala nola ipuin bildumak (...) Euskaltegietan eta institutuetan berritu egin beharra dago, noizean behin, testu

literario erraz, arin eta laburren hornikuntza, eta halako liburuek aukera egokia eskaintzen dute horretarako. Horrela esplikatu daiteke (beste arrazoi batzuen artean, noski) zergatik ez dion (oraindik) muzin egiten gurean ipuinari literatur produkzio-lerro standard eta homologatu baten garapenaren alde gehien egin duen argitaletxeak, MegaElkarrrek alegia».

Xabier Erkizia musikagileak *Berrian*: «Kopia, azken finean, naturaren bizimodua da. Jaio-tzen garen mementotik elkarri kopiatuz ikasten dugu, elkarri kopiatuz bihurtzen gara garena. Kopia eta kopiatzeak egiten gaitu pertsona (...) Nola da posible kopiatzen duen gizartea originaltasunean oinarritutako legeen arabera antolatzea? (...) Guztiok gara piratak, eta beraz, musikari oro ere, pirata da».